



Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte
Sociedad Informática del Gobierno Vasco



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD



Telefonica

PROZESUOSOA ESKULIBURUA



Osakidetza
Servicio vasco de salud



RECETA ELECTRÓNICA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

EJIE, S.A.
AVDA. MEDITERRÁNEO, 3
01010 - VITORIA-GASTEIZ

29/03/2007

1. PROZESUOSOAREN INSTALAZIOA

Instalagailu bat sortu da ekipo "*garbietan*" probak egiteko, hau da, instalaturiko sistema eragiletik aparte beste inolako softwarerik ez daukatenetan.

Instalazioa egiteko behar den gauza bakarra Microsoft Windows Installer eguneratzea da, beharrezko gertatuz gero.

- Horretarako instalazioak artxibo bat dauka ***instmsia.exe*** deritzona, eta Microsoft Windows 98, Me, etab. eguneratzen dituena.
- Instalazioa gauzatu ***setup.exe*** artxiboarekin.

Instalazio hau Installshield Developer 7.04 erremintarekin gauzatu da. Beharrezkoa da balioen gutxieneko multzo bat dispentsatzea gauzatzeko.

2. PROZESUOSORAKO ATZIPENA

ProzesuOsoa aplikaziorako atzipena lortzeko Osasun Sailari erabiltzaile bat eta pasahitz bat eskatu behar zaizkio.

3. ARTXIBOAK ETA KARPETAK

Behin instalazioa egin ondoren, aurki daitezke honako artxibo hauek C karpetaaren barruan: Programako artxiboak\Bilbomatica\Interface:

- Interface.dll, dispentsatze motorra.
- Initiator.dll, preskripzioak berreskuratzeaz arduratzen dena.
- Executor.exe, dispentsatze asinkronoa egiten duena.
- Interface.ini, konfigurazio aukerak.
- Defrespo.xml, defektuzko xml erantzuna.
- Procesocompleto.ini, prozesu guztiaren proba orokorra egiteko, ProzesuOsoa aplikazioak erabiliko dituen datuak dauzka, alegia, hasi gauzatzeko dauden preskripzioen berreskuratzetik eta berauen dispentsatzeraino.

Eta ondorengo karpetak:

- Kontu-ikuskapena: historiko bat jasotzen da bidalitako mezuena, eguneko datara arte jasotakoena, eta bezeroa aplikazioari itzuli zitzaion ordua eta erantzunarena.
- Bidalitakoak, web zerbitzura bidaltzen diren dispentsatze eskabideekiko XML/SOAP fitxategi guztiak jasotzen dira.
- Hartutakoak, web zerbitzuak itzulitako dispentsatze eskabideentzako erantzunak dakartzaten XML/SOAP fitxategiak jasotzen dira.
- Atzeratuak, bezeroari bidaltzeko garaiz iritsi ez ziren web zerbitzuaren erantzunak jasotzen dira, horregatik defektuzko erantzuna eman zitzaiolarik,

4. PROZESUOSOA:

ProzesuOsoa Errezeta Elektronikokoaren DLL-an, prozesua era independentean probatu ahal izateko helburuz, instalatzen den aplikazio bat da.

Ezinbestekoa da garapeneko edo produkzioko **OTE bat erabiltzea** bai eta Izenpe softwarea ere. Helburua hornitzaileei proba aplikazio bat eskaintzea da beren garapen lekutik DLL-en konektagarritasuna eta oinarriko funtzionamendua probatu ahal izan ditzaten. Aplikazio hau bulego teknikoak instalatuko du farmazietako konexioak probatzeko, eta **hornitzaileek ez dute berau erabili beharrik izango**. Exekutagarri hau aurkitu ahal izango dugu liburutegiaren instalazioko karpetan:

C:\Programako Artxiboak\Bilbomatica\Interface

1- interface.ini-aren konfigurazioa:

interface.ini fitxategian honako balio hauek dauzkagu:

[Konfigurazioa]

Zerbitzua=<https://www.ej-gv.net/p70DispentsatzeaWSWar/p70DispentsatzeaWS?WSDL>

...

[Txartela]

...

ZeroakKendu=1

CertIssuerSimpleName=herritar eta erakundeen ca -

Era honetan segurtatzen gara produkzioko zerbitzarira sartzen garelara eta produkzioko txartelak irakurtzen ditugula.

ZeroakKendu=1 balioak horrela izan behar du ezkerreko zeroak ezabatuak izan daitezen eta txartelak behar bezala irakurtzeko.

2- prozesuosa.ini-ren konfigurazioa:

Aplikazioak aurrez definituriko eta probak egiteko erabiltzen diren balio batzuk dauzka, nahiz eta produkzioan farmazia bakoitzak bere aldagaiak edukiko dituen, sistemaren barruan identifikatuko dutenak:

[Datuak]

IdErabiltzailea=xxxxx


PasahitzaErabiltzailea=xxxxx

idFarmazia=627

idFarmaceutico=farma

FarmaziaProbintzia=48

3- Preskripzioak lortzea:

Txartela sartzen da txartelen irakurgailuan eta OTE laukiaren  eskuinean dagoen irudiaren gainean sakatzen da; itzultzen duen mezuan "Onartu" sakatuko dugu eta pazientearen izena eta txartelaren zenbakia irakurriko ditu.

Baldin gauzatzeko preskripzioak badauzka, pantaila batean agertuko dira hauek.

Preskripzio bat hauta daiteke, gainean bi bider klik eginez edo laukitxoak markatu eta "Onartu" sakatzuz.

4- Dispentsatzea:

Preskripzio bakar bat hautatzen bada, aurreko pantailara itzultzen da eta

Dispentsatu **DISPENSAR** etiketa sakatzen da Errezeta Elektronikokoan grabatua gera dadin.

Hautaturiko preskripzioak bat baino gehiago badira, hautatu diren pantaila berean "Onartu" sakatzean dispentsatuko dira.

5- Preskribatzea eta Dispentsatzea:

OTE daukan paziente batek paperean daukan errezeta bat, baina Errezeta Elektronikokoan ageri ez dena erantsi daiteke honetan. Preskribatu eta

Dispentsatu **PRESCRIBIR Y DISPENSAR** botoia sakatzuz, datu hauek dakartzan pantaila bat agertuko da: kolegiatua, erregimena, preskripzioaren mota,... Onartzean, grabaturik geratuko da Errezeta Elektronikokoaren datu basean.